

## San Pankrazio, Txomin Txapel eta ETEOko jaia

2009/05/18

ETEoko jaia, maiatzak 8an ospatu zen, ekintza bereziak antolatu ziren Oñatin eta Irunen. Oñatin lasterketa, ginkana, futbolin txapelketak eta bazkari ostean mus txapelketak antolatu ziren. Irunen berriz, Mus eta poker txapelketaz gain, bazkariak eta kontzertuak ere izan zituzten.

San Pankrazio eguna (GEPko eguna), maiatzak 14ean ospatu zen, eta bertan, ikasle eta langileek areto futbol, saskibaloia eta mus txapelketan parte hartzeko aukera izan zuten. Denen artean giro ona aipatzekoa izan zen, emaitzak hurrengo orrian dituzuelarik ([link](#)).

Txomin Txapel eguna (Huheziko eguna), maiatzak 15ean ospatu zen, eta bertan ere, hainbat jarduera antolatu ziren ikasle eta langileek parte hartzeko. Horrela goizean ginkana bat antolatu zen, non 20 bat partaide ibili ziren proba ezberdinak egiten. Partaide denek ondo pasa zuten eta eguna jai giroan jarraitu zuten.

Hurrengo urterarte denoi.

